

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Nafarroako Gobernuak, PPNk aurkeztutako amatasuneko prestazioei buruzko Foru Legearen proposamenaren izapidetzearekin desadostasuna erakutsi du

*Foru Exekutiboaren ustez, horien aurrean planteaturiko salbuespena atzeragarria eta diskriminatzailea da*

Asteazkena, 2018.eko urriak 24

Nafarroako Gobernua ez dago ados Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Foru Legea aldatzeko Foru Legearen proposamenaren izapidetzearekin; proposamena, hain zuzen ere, PPNk aurkeztu du amatasunaren bidez jasotako prestazio publikoak salbuetsita aitortzeko.

Proposamenaren arrazoiaren artean, Auzitegi Gorenaren doktrina eta Espainiako gainerako lurraldeekin alderatu daitezkeen bidegabekeriak aipatzen dira proposamena justifikatzeko argudio gisa. Baina proposamen horretan aipatzen den Auzitegi Gorenaren epaiak amatasunaren bidezko prestazioa soilik inkardinatzen du PFEZen estatu-legeko (PFEZL) 7. artikuluko h letrako hirugarren paragrafoan aurreikusitako kasuan; beraz, auzitegiaren doktrina soilik estatu-arau horretan ezarritakora mugatzen da. Gainera, arlo horretako legegintzako foru-autonomia dela-eta, Nafarroan prestazio horiek salbuetsita egon dira 2012. urtera arte, eta urte horretatik aurrera esplizituki ezabatu zen salbuespena; hortaz, indarrean den legeak salbuespen horiek itzultzea galarazten du.

Bestalde, Nafarroako Zerga Ogasuna (NZO) erakunde autonomoak Foru Legearen proposamenaren aurreko zenbait gogoeta egin ditu, eta nabarmendu du, PFEZen egungo egitura dela-eta, oinarri likidagarri orokorrean sartu beharreko errendimenduan salbuespena aplikatzeak efektu atzeragarri garrantzitsuak sor ditzakeela zerga-ordainketan. Modu horretan, subjektu pasiboaren "gainerako errentak" zenbat eta handiagoak izan, orduan eta zerga-beheraldi handiagoa lortuko du subjektu pasiboak salbuespena medio, eta, gainera, deszergatze horren igoera pixkanaka handiagoa izango da (ez proportzionalki handiagoa), subjektu pasiboaren aipatu "gainerako errentak" orduan eta handiagoak diren heinean.

Modu berean, prestazio publikoa jasotzen duen pertsonaren lan-errendimenduen bidezko soldata zenbat eta handiagoa izan, amatasunaren bidezko prestazioa handiagoa izango da, eta, ondorioz, subjektu pasiboak zerga-beheraldi handiagoa lortuko du. Gainera, deszergatze horren igoera ere progresiboa izango da. Eta hori horrela da amatasun bidezko prestazioa jasotzen duen pertsonaren soldataren arabera kalkulatu delako; hau da, prestazio publikoa dagokion oinarri arautzailearen %100aren subsidio baliokidea da.

Nafarroako Zerga Ogasunak gehitu du proposamenak soilik amatasun bidezko prestazioak hartzen dituela, aitatasun bidezko prestazioak alde batera utziaz, eta ez duela zehazten lan-errendimenduak diren prestazioei dagokien edo baita ere jarduera profesionalen edo enpresa-jardueren errendimenduak jasotzen dituztenei eragiten dien; kasu horretan, horiek diskriminatu egingo lirateke.